



UDAL BATZORDEEN BERRI

LAN-TALDEA	AZTERGAIAK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Azpiegitura eta ingurumena (2020/11/25-2020/12/16)	Udaletxeko obra	<p>Teilatuko eguzki plakak, eta ganbaran argia sartzeko sabai-lehioak ere bukatuta daude. Bi jarri dira isuri bakoitzean, 8 guztira beraz.</p> <p>Teilatuan legeak eskatzen duen "linea de vida" izeneko metalezko kable bat jarriko da, teilatuan segurtasunez ibili ahal izateko, teilatura zerbaitetara igo beharra suertatzen denean.</p> <p>Eraikinaren kanpoko 4 aldeak ere pintatu ziren, beraz eraikinaren buelta osoan jarrita dauden andamioak egun hauetan kenduko dira.</p> <p>Ganbara erabat bukatzeko, zoruaren akabera, eta bertara igotzeko eskailera berria falta dira, instalazio elektriko eta berogailu sistemaz gain.</p> <p>Ostaturako parrila ere egingo da atzekaldean, eta guztia otsailean bukatzea espero da</p>	
	Alegiako errepidearen bulebarizazioa	<p>Asfalto berria bota du Orsa enpresak, eta impresoa ere marraztu da. Pintatzea atzeratu da eguraldiagatik</p> <p>Udalak bere gain hartuko du Landanetik Ostaturaharrera doan sarezko hesia berritzea. Hercules delako sarea, metroko altueraz, izango da aukera. Herriko arauak ez dute 1,80 metrotik gorako hesirik baimentzen eta kasu honetan pretilaren altuera ere gehitu behar zaionez metrokoa izan daiteke gehienez.</p>	<p>Eguraldia hobetzen denean pintatuko da</p> <p>Udal langilean errepide ertzeko baranda berria jarriko du, eta enpresa batek trafikoko seinaleak jarriko ditu</p>
	Jolas parkea Itsason	<p>Jolaserako elementu zaharrak S Lorentzon kokatu dira..</p> <p>Gainerakoan, udal-langileak parkeko urak ondo bideratzeko hormigoia bota zuen, eta kantxaren zoruari zespedituzko artifiziala jarri. Maderplay-k ipini ditu kolunpio eta jolas gazteluaren azpian akoltzatua</p>	<p>Porteria eta kanasta aurrerago iritsiko dira</p>



LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Ekimen sozio-kulturalak (2020/12/02,23)	Herriko proiektuen proiektua	<p>Herriko Produktuen taldeko kideekin batera, proiekturako lortutako dirulaguntzarekin gauzatu daitezkeen aukerak aztertzen eta asmoak herriko beharretara integratzeko ahaleginetan aritu gara:</p> <p>---“Show cooking” erakustaldiek 3 hilabetez behin aurreikusten dira, egun berdinean aurrez beste tailer bat antolatuko litzateke eta hauek dira proposatutako datak.</p> <ul style="list-style-type: none">- Otsailak 27: Pott Keramika ikastaroa (aurreko bi larunbat norberak ontzi bat sortzeko).- Maiatzak 29: nutrizio ikastaroa- Irailak 25: Hariztizabalen pastak egiteko ikastaroa- Azaroak 27: hitzaldi bat (zehazteko) <p>“Show cooking” erakustaldirako herriko produktuen ekoizleek haragi, garaian garaiko barazki eta fruta, eta ogi zein pasta jarriko dituzte, honetarako aurrekontu bat egin delarik.</p> <p>---Bestetik, dirulaguntza honekin Ostatuko sarrera eta tabernarako mahaia eta aulkiak ere erosiko dira (Zumarragako “Suministros Euskalerra”-n egin da eskaera)</p> <p>Ekimen hauen guztien aurrekontuak ere finkatu dira</p>	<p>- Ekintza bakoitzarentzat berariazko jakinarazpena prestatu aldian aldian.</p> <p>- 2021eko Leader diru-laguntzetara aurkeztu ahal izateko, proiektua lantzen jarraitu</p> <p>- Dendaren egitasmoa landu</p>

LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Komunikazioa, partaidetza eta gardentasuna (2020/12/09)	Gabon jaiak eta apainketa	<p>- Udaletxeko obra dela eta, aurten Olentzero eta Mari Domingi eliz atari txikian jarri ziren, eta bertan jaso zituzten herriko txikienen gutunak..</p> <p>-Etxez etxeko Gabon kanturik egiterik ez zenez izan, honen ordeztu bi bertso grabatu eta hauekin bideo bat egin zen herriko whatsapp taldean zabaltzeko</p>	



ITSASOKO
UDALA
(GIPUZKOA)

	Jubilatuei bisita	Aurten, Covid egoera dela eta, adinekoei bisita egin zaie eta herriko produktuen lote bana eman zaie	
--	-------------------	--	--